

@ piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 69. alea 2003ko maiatzaren 19a



**Maiatzaren
25**



**Inoizko hauteskunderik
nahasiarik**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean



GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoa: Pascual Churruca S.A.

Errekalde 21 / Telefonoa 943 750006 eta Faxa 943752461

“Tailarra haunditzeko asmua daukagu”

Noiz sortu zenduten lantegixa?

1931n hasi zan Pascual bere anaia Franciscokin batera eurek patentatutako gomazko zoladun perrak egitten. Baiña Pascual Churruca S.A. beranduago sortu zan, 1948xan.

Zeinek edo zeintzuk sortu zeben?

Pascualek berak sortu zeban, Enrique ta Celestino semiekin. Gaur egun hirugarren belaunaldixak zuzentzen dau ta laugarrena be sartu da.

Zenbat langile zabizie?

Gaur egun 45 gare, danak finkuak.

Ze produktu edo zerbitzu mota eskaintzen ditzuzue?

Hotzian ta beruan jotako torloju edo piezak (estandar nahiz berezixak) egitten dittugu, oso sektore desberdiñeri zuzenduta: eraikuntza, nekazaritza, automozifñua, elektragailuak...



Nunguak dira zuen bezeruak?

Euskal Herrikuak eta Espainiakuetaz aparte, Alemania, Frantzia, Belgika, Noruega, Dinamarka, Suedia, Inlaterra, Portugal, Tunez, Saudi Arabia...

Amaitzeko, etorkizunerako aldaketaren bat egitteko asmorik ba al daukazue?

Tailarra haunditzeko asmua daukagu, Oleako zubi berrirutz geldittu dan lursaila erabiliz. Produkziñua haundittu baino, lana hobeto ta kalidade hobiakin egittia nahi dogu.



Zeini emango ote diot nere bozka?

EGOITZ UNAMUNO

Idi pare bila

“Golde garaia da”. Hala dio bertsolari ezagun batek Egunero(n). Politikaz diharduela, denaz, Euskal Herriaz, bizi dugun egoeraz, garaiaz. Goldea pasatzeko garaia heldu dela dio. Bat nator. Zenbat denbora da gure lurtean goldea pasatu ez dela? Neuk ez dut golde garairik ezagutu. Entzun bai, entzun dut lehenago urtero goldatu izan zela lurra. Lur azalean hazia botatzea alperrik dela ere entzun dut. Hori ez dela ereitea. Horrela ez dela hazirik ernetzen. Bedar txarrak bai, horiek azalean ernetzen dira. Ez dute fruiturik ematen eta inguruan ere ez da izaten. Baina ba ote dago goldea pasatzeko moduko idi paperik gure herrian? Traktore ederrak bai, baina horiek ezin dute aldapan ibili. Astoak ere bai, baina horiei harri pila jartzen diete gainean eta egon daitezela otxandu arte. Eta orduan? Bilatu egin behar da aurkitzeko.

Gure kargudunak

Gogoan dudana bertsolari batek

jaulgi zuen bertsoa, bapatekoa baina heldua. “Edozoin izan ditene gure kargudunak, gaurkoak ere dira atzokon lagunak, ez ditzagun iragan gau eta egunak, hortik kobratu ustez hartzen ditugunak, bertze egitekorik badu eskualdunak”. Gizon horrek bazekien zerbait. Ez dut uste anarkista zenik, baina fede gutxi zuen agintarienganako, Jaingoikoarenganako ez bezela. Politiko denak berdinak orduan? Ez. Baina politikoak politiko eta urak beti bere bidea egiten. Horregatik daukagu euskaldunok bertzelako horrenbertze zeregin.

Galdetzeko ordua da!

Zerbait banaiz. Bertsolaria? Nahi nuke. Abertzalea? Hala omen gara euskaldunon gehiengoa eta terroristak ere bai. Ba ni euskalduna naiz eta euskaldun moduan bizi nahi dut Euskal Herrian, horixe bakarrik. Eta zelako Euskal Herria nahi dudana? Joder! Ba, esango dizut independentea agian. Baina besteek hori nahi ez badute ba federalista edo beste hori, atxikimendu librekoa

edo. Oraingoa ez behintzat. Kontua da, inork ez didala galdetu.

Hauteskundeak. Puff!

Zertarako? Zertarako ematen dut bozka lau urtean behin. Arazorik nagusia mendeetan konpondu barik izateko? Horretarako nahikoa litzake 10 urtean behin emanda. Gainera beti irabazten dute berdinak eta aurtentzen aukera bat gutxiago dago.

Nik bozka eman arren, jendea hiltzen dute, jendea torturatzen dute, komunikabideak ixten dituzte, hautagai zerrendak ilegalizatu eta badakit nik zer gehiago. Hori bozkatzen al du ba norbaitek? Orduan galdetzen diot neure buruari zertarako eman behar dudana bozka. Azkenean emango dut, baina nik eman nahi dudana botua, gorago esan dudana moduan, konfidantzazko botua da, Euskal Herriak daukan gatazka konpontzeko, etorkizuna erabakitzeko. Hogeitabostera bitartean, BERRIA BERRI emango diot egunero! Hori da eraginkorra. Herri emankor hau zerekin goldatu izan dezagun!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Ajenda

Musika Eskolaren
Matrikulazioa
Maiatzaren 21etik ekainaren 13ra
izango da zabalik.

Ipuin Lehiaketa
Lanak aurkezteko epea zabalik
dago, maiatzaren 17tik ekainaren
8a bitartean.

Maiatzan 21ean
Musika Eskolaren kontzertua
1. mailako ikasleekin
Lekua: Ikastolako Frontoian
Ordua: 16:15etan
Matrikulazio kanpaina.

Maiatzaren 31an
Bergarako Orkresta Sinfonikoa
"El señor de los anillos"
Lekua: Kiroldegiko Frontoian
Ordua: 22:00etan
Sarrerak: 6 euro (aurretik)

8 euro (bertan)

Ekainaren 5ean
62an jaiotako en bazkaria
Txurruka Jatetxean
(14:00etan Txokoan elkartuko
dira)

Ekainaren 7an
XXXIII. Euskal Jaia
- Nafarroako Dantzariak
- Sagardoa
- Erromeria
(Aurreko larunbatean nekazaritza
ekologikoa ezagutzeko irteera
antolatuko da. Asteazken zehar hitz-
aldi bat ere izango da.)

OKER ZUZENKETA: Aurreko
alean, Zer Berri ataleko EAJ-EAko
zerrendetan, Maite Oregi EA-tik
aurkezten zela jarri genuen, inde-
pendiente moduan aurkezten dene-
an. Barkatu eragozpenak.

Zorion agurrak



Miriam Canton Mateo eta Ana Mateo
Maiatzaren 18a
Zorionak bikote!!
Segi argazkian bezain irrifartsu eta ondo
pasa zuen urtebetetzean.
Sendi osuan partez.

Andoni Gallastegi
Maiatzaren 18a
Zorionak mutil!!
Ondo pasaizu zure
egunian.
Miriamen eta gura-
suen partez.

Aimar Bengoa
Maiatzaren 12a
Zorionak mutil!!
Ondo pasaizu zure
egunian.
Onar eta guztien
partez.



Gaizka Soraluze
Maiatzaren 18a
Zorionak mutil!!
Ondo zaindu belarri-
xak ze...
Etxekuen partez.



Nerea Nieves
Maiatzaren 1ean
7 urte
Zorionak !
Gaur be mingaina jan
dozu? Ja, ja!
Muxu asko.
Lagunak eta etxeokak.



Maria de la Rosa
Maiatzaren 5a
Zorionak !!
Ondo pasau
zure egunian.
Etxekuen partez.

hildakuak

Antonia Mendia
Karmen Larrañaga
Leonardo Holguin
Ceferino Flores
Diego Solana
Maria Aldazabal
jaiotakoak
Markel Oregi Varela
June Eguren Gomez
ezkonduek
Aitor Leturiondo
Elena Garzia
Jon Irizar
Irene Galarraga

Merkatu Txikia



LAN ESKAINTZAK

* **Neska euskalduna behar da denda batean la egiteko.** Bidali datuak Arrasateko 259 posta kutxara
* **Zerbitzaria behar da** Azpitxiko jatetxean 943765500
* **Lehen mailako ofiziala behar da** Bergaran aroztegi batean 615737087
* **Hirigintzako erdi mailako teknikari bat Aretxabaletako Udalerako.** Arkitekto teknikoa izatea esakatzan da. 943-79-10-00

AUZOLANDEGIAK

* **Rempartek auzolandegiak antolatu ditu 2003ko udarako,** 18 urtetik gorako gazteentzat. Auzolandegietako lana aldatu egiten da monumentu moten eta hauen zaharberitze egoeraren arabera. Epea: ekainak 16 (Argide gehiago jasotzeko deitu 943741461 tlfonora)

LEHIAKETAK

* **Lasarte: Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketetan parte hartzeko** izen ematea zabalik maiatzaren 30a arte (informazio gehiago: www.lasarteoria.org)
* **Bilbo: Argazki lehiaketa.** Udaletxeko kultura eta turismo sailak antolatuta Lanak maiatzaren 12a baino lehen jaso behar dira errekaldeko Udal Zentroan (Informazio gehiago 944447339)
* **Kutxa Irun hiria:** Bi modalitate daude: poesia eta nobela. Lanak euskaraz nahiz gazteleraz aurkez daitezke. Epea ekainak 14 (Illarra bidea 5, 20018 Donostia)

BESTELAKOAK

* **Nafarroan, logelak eskaintzen dira** Lizarratik gertu dagoen landetxe batean 699187568
* **Bigarren eskuko pianoa** erosiko nuke. Egoera onean 943740537
* **Alcatel mobila salgai.** Prezio onean. 637110197
* **Karabana salgai** Katusa 3750 943742164
* **Karabana salgai,** Escala 490 markakoa. Gehigarriekin. 657725447
* **Idazmakina berria salgai.** 943 75 17 30

FER. S.A. Industriak
Eskulanetarako tresnak
Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KOL
HORTZ KLINIKA
MEDIKU ESTOMATOLOGOA

ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Zer irizten dotsazu?

Maiatzaren 25ean egingo dira Udal Hauteskundeak. Giro nahasia bizi da bazterretan eta honen inguruan soraluzetarrek duten eritzia jakin nahi izan dugu.

Ze pentsatzen dozu hauteskunde honetan dagan giruaz?



Arantxa Mendikute
36 urte
Etxekoandria
Nik egixa esanda ez dot-sat kasorik egitten, danak dabizelako alkarri gaizkiesaka eta hola txarto gabiz, ez goiaz inora. Beraz ez dot jarraitzen zela doian gauzia.



Roman Olaizola
38 urte
Irakaslea
Oso giro nahasgarria eta oso zaila dao behintzat gatazka honetan dagan sektore batendako. Nik uste dot, Euskal Herrixan sektore handi batek ez dakala aukerarik bere alderdixari botua emoteko eta horri txarto erizten dotsat.



Francisco Jose Juan Gonzalez
25 urte
Langilia
Girua oso arraro daguala ikusten dot gobernuan kulpaz, partiduen legia-kin indar politiko bat legez kanpo laga dabelako eta hori txarto iruditzen jata.



Mirari Olerza
48 urte
Fagorreko langileak
Oso gogorak iruditzen jataz gertatzen ari diran gauzak eta horren ondorixoz girua oso petralduta dao eta egoeria oso txarto.



Rosa Etxeberria
43 urte
Etxe laguntzaile
Ba askatasun falta asko dagan giro baten gare, pertsona batzuk ezingo diralako auteskundietan aurkeztu eta ez gare estatu demokratiko baten, estatu faxista baten baizik.



Mª Pilar Agirrebeña
70 urte
Etxekoandrea.
Nik nahi neukena da, nahaste borrhaste hontatik danontzat ona dan agintari bat ataratzia, danon onerako egingo dabena.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza onartu du udalak



Udal batzarrak maiatzaren 5ean egin zuen bilkuran, lokalak etxebizitza izatera aldatzeko araudia zehazten duen Udal Ordenantza onartu zuen. Ordenantzak, Udalak herri osoan egindako azterketa batean oinarrituta, aldaketa hau ezartzeko aukera izan dezaketen eremuak zehazten ditu; Ezozia, Gabolatx, Telefonica, Errekalde, Atxuri, Zubia, Rabal eta Baltegieta. Eremu horie-

tan dauden lokalen jabeek etxebizitza bihurtzeko eskaria egiteko aukera izango dute. Eskariak banan banan aztertuko ditu Udalak eta Ordenantzan zehazten diren baldintzen arabera onartuko ditu. Baldintzen artean, lokalak 40m² baino gehiago izatea, 2,5 mko gutxieneko altura izatea, sarbidea eraikinaren ataritik izatea eta ez zuzenekoa.

Loraldeko urbanizazio egitasmoa lehiaketara atera da

Joan zen maiatzaren 5ean erabaki zuen Udalbatzarrak, Sestra etxeak prestatutako Loralde urbanizatzeko proiektua lehiaketara aurkeztea. Urbanizazio proiektuak 161.359 euroko aurrekontua izango dute guztira, besteak beste, gas, argindar eta telefonía azpiegiturak lur azpiko hodietaik eramateko, ur zikinak bideratzeko, argiztatzea jartzeko, aisialdirako parke txiki bat egiteko eta auzoguneko lur zorua berritu eta goreneko etxeetarako eskailerak egokitzeko egitasmoak zehazten ditu. Hurrengo 26 egunetan izango da zabalik izena emateko epea,



eta behin lanen ardura emandakoan, aukeratutako enpresak 2 hilabeteko epea izango du aipatutako lanak amaitzeko.

Soraluzetar bat hil da lan istripuz Eibarren

Asteartean Eibarko eraikin batean lanean ziharduen soraluzetarra hil zen istripuz, lanean ziharduen aldamiotik erorita. Sindikatuek, 2003. urtean lanean hil diren langileen heriotza tasa handiak salatzen dituzte ekintzak antolatuta egunotan.

Lurdes Txurruka Huelvara eraman dute

Lurdes Txurruka soraluzetar presoa, hilabete isolamentuan pasatu eta gero, Avilako gartzelatik Huelvatora eraman berri dute aste honetan. Senitartekoei salatu dutenez, "ez dakite zein arrazoigatik aldatu duten, kontua da orain askoz urrutiago dagoela".

Udalbiltzaren aldeko mozioa

Maiatzaren 5eko Udal Batzarrean, SAKo zinegotziek aurkeztutako Udalbiltzaren aldeko mozioa onartu zuen Udalak, EAJ, EA eta SAKo zinegotzien aldeko botoz. PPko eta PSEE-Eeko zinegotziek mozioa aurkeztu zenean aretoa utzi zuten. Aurretik Sako zinegotziek ez zuten botazioetan parte hartu, Udalbiltzaren kontrako erasoak salatu zen arte. Onartutako mozioak, besteak beste Euskal Herriaren nazio izaeraren aldarrikapena egitea eta nazio eraikuntza bultzatzea jasotzen ditu.

Bake epailea aukeratu du Udalak

Maiatzaren 5eko batzarrean, Udalak Soraluzeko bake epaile titularra eta ordezkoa hautatu zituen. Udalbatzarraren gehingoak Margarita Ibargoien aukeratu zuen epaile titular moduan eta Rakel Soria honen ordezkoko moduan. Izendapenak 2003-2007 aldirako dira.



EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Udal Hauteskundeak 2003

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan atarian, herriko lau hautagai zerrendek aurkeztu dituzte, legegintzaldi berrirako ditzuten asmo eta proposamenen berri. Ondorengo orrietan saiatu gara gutxi asko horren berri ematen. Dagoeneko mahaietan izango diren pertsonak hautatu dira eta 25ean Kiroldegian izango dira hautesontziak.

EAJ-EA: “Lau urte hauetan egin dugun lanari jarraipena eman nahi diogu”

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak “Alderdi Popularraren strategiari aurre egiteko hesi bat bat osatzeko” helburua dute. Aurreko Udal-Hauteskundeetan, EAJk 5 zinegotzi lortu zituen, 966 bozkarekin eta EAK bakarra, 247 bozkarekin. Koalizioak legealdi berrirako prestatutako programan, martxan dauden hirigintzako lanekin jarraitzea (Olatik estazioarako bidea, herriaren erdigunearen eraberritzea, Erregetxean aparkalekuak...), zuntz optikoaren ezarpena, Saciako babes ofizialeko etxeen eraikuntza, kultura taldeendako Ikastola zaharraren egokitzapena, Euskararen Biziberritze Planaren garapena, emakumearenganako programak eta 0-3 urte bitarteko hezkuntzaren garapena.



EAJ-EA koalizioak, kiroldegian egin zuen bere programaren aurkezpena. Alberto Sudupe da zerrendaburua eta Oskar Gabilondo, Nerea Perez, Iker Aldazabal (atxikitutako irudikoa), Mirari Olertza, Maite Oregi eta Jose Luis Badiola datoz hurrena.

ZERRENDABURUA



ALBERTO SUDUPE OREGI

Adina: 45 urte.

Jaioterria: Soraluze.

Ikasketak: Filosofiako 3 urte eta Banketxe Ikasketak.

Lanbidea: Kutxan eszedentzian.

Egoera Zibila: Ezkondua.

Zaletasun bat: Mendia.

Azken aldixan jaso dozun albisterik onena? Eta txarre-na? Alkate moduan, Ezoziko baselizaren inaugurazio eguna izan da satisfaziorik haundiena eman didana. Txarre-na, Iñaki Saez eta Asier Heriz hil ziren eguna, eta ostekua.
Zein egunkari irakurtzen eta ze irratientzuten duzu? El Diario Vasco.

Domeketan Deia eta El Pais. Irratian, Arraten musikia eta bidaietan Radio Euskadi eta Gabilondo SERen.

Nor miresten dozu? Zergatik?

Ghandi bakearen sinbolo delako.

Zer da pertsona batengan gehien estimatzen duzuna? Zintzotasuna, sintzeritatea eta besteen alde lan egiteko prestutasuna.

Soraluzeko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta ezkutatu? Mendigaina. Ezkutatu, erreka-zuloetan dauden zakarrak.

Hauteskundeak. Zelakoak izango dira? Aurreko hauteskundeak esperantzaren hauteskundeak izan ziren. Orduan ematen zuen su etenarekin bide berri bat zabalduko zela baina zoritxarrez ez da horrela izan. Aurtengo hauteskundeak ez dira benetakoak izango. Euskal Herriko pertsona asko ezingo dira aurkeztu. Beste asko mehatxatuta aurkeztuko dira. Edozein modutako edozein mehatxu desagertu arte, ez da hauteskunde librerik izango.

Zuen programaren punturik garrantzitsuenak. Zer proposatzen duzue?

Legealdi berriko lehentasuna etxebizitzaren arazoari, batez ere gazteak dauka-

ten ezintasunari konponbidea bilatzen saiatzea izango da. Horretarako Saciako babes ofizialeko etxebizitzak bultzatu eta etxe hutsen azterketak egingo ditugu.

Soraluzek daukan onena eta txarre-na? Soraluzetarren dinamismoa eta sormen indarra. Historiari begiratuta, gure herriak bizi izan dituen krisi gogorrenei buelta ematea lortu du. Aurrera ere hala egingo du. Txarre-na, sarritan ez daukagula konponbide bat bilatzeko elkar hartzeko ahalmenik.

Zer falta da Soraluzen? Gauza asko. Biztanle kopuru on bat daukagu.

Trafiko azpiegituren kontua aurrera doa. Zikloa osatzeko, kulturegintzarako azpiegiturak egin eta etxebizitzaren arazo konpondu behar genuke. Soraluze bizitzeko herri atsegina izatea da gure helburua, jendea hemen bizi dadin nahiz kanpoan lan egin.

Zer dago soberan? Erreketako zikin-keria.

Maiatzaren 25ean zuri bozka emateko arrazoi bat? Nik esango nuke, kontuan hartzeko lau urte honetan egin dugun lana. Guk bide horretan jarraitzeko asmua daukagu.

Askatasun Haizeak: “Gure artean lanerako gogoia eta indarra daukagu soberan”

Askatasun Haizeak, legez kanpo utzi ez dituzten 16 herri plataformen artean dago. Soroluzeko Askatasun Haizeak; “Euskararen alde, Ama Lurraren alde, euskal kulturaren alde, emakume eta gizonaren berdintasunaren alde...herritarren eskubideak defendatzeko konpromisoa hartzen du”. EHK 1999an 757 bozka lortu zituen eta 3 zinegotzi izan ditu Udalean. Plataformaren proposamenen artean, Emakume batzorde bat sortzea, etxebizitza hutsen azterketa egitea, enplegu batzordea indartu eta herriko langabetuendako lan poltsa bat osatzea, jubilatuen egoitzarendako leku hobe bat bilatzea, gazteen aisialdi zerbitzuak sortzea, kirol batzorde eraginkor bat osatzea, Udala eta herria euskalduntzea eta Kultur Etxea eraikitzea dira.



Ezozin ateratako argazki honetan azaltzen dira Askatasun Haizeak plataformaren zerrendetan joango diren hautagaiak; Jose Luis Arizaga, Monika Muro, Jose Agustin Moro, Unai Larreategi, Maite Etxeberria, Amaia Argarate, Aitor Lasa eta gainontzekoak.

ZERRENDABURUA



JOSE LUIS ARIZAGA URIZAR

Adina: 45 urte

Jaioterria: Soroluze

Ikasketak: Batxilergo ikasketak

Lanbidea: Pensionista

Egoera zibila: Ezkondua

Zaletasun bat: Bidaiatzea, pertsona, toki eta ohitura berriak ezagutzeko.

Azken aldian jaso duzun albisterik onena eta txarrena? Laister euskarazko egunkaria berriro ere kioskoetan izango dugula jakitea albiste pozgarria izan da. Txarrena berriz, Lurdes, herriko euskal preso politikoa hurbildu beharrean Sotoko espetxetik Huelvako puntaraino eramán dutela.

Zein egunkari eta ze irratiri entzuten duzu ohizkoan? Egunkariak GARA eta EGUNERO, irratia HERRI IRRATIA eta EUSKADI IRRATIA.

Nor miresten duzu? Zergatik? Pertsonalki ez dut inor miresten, orokorrean, miresten ditut beste gizaki edo

helburu batzuen alde lanean ari diran guztiak, bizi garen gizarte kapitalista eta kontsumista honen baloreak aldatzen joateko jarrera ezinbestekoak direlako.

Zer da pertsona batengan gehien estimatzen duzuna? Adiskidetasuna eta leialtasuna asko estimatzen ditut

Soroluzeko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta ezkutatu? Mendi gaina, Pagobedeinkatu inguruak gehien bat, oso atsegin ditut. Badugu zer hobetu, babestu edo berreskuratu, baina ezer ez ezkutatzeko.

Hauteskundeak. Zelakoak izango dira? Guztiz antidemokratikoak. Nahiz eta gure herri plataforma, beste bakan batzuekin batera, anekdota bihurtu azkenengo egunetan, Madrilgo gobernu faxistaren putxerazoaren kriba gainditzeagatik, garbi daukagu salbuespen egoera batean gaudela Euskal Herrian.

Zuen programaren punturik garrantzitsuenak? Gure programa irakurtzera gonbidatuko nituzke herritar denak. Ez dugunaren egingo adibide bezala, Udalak kaleratutako azken aldizkaria ipiniko nuke. Bertan, alkatea eta bere alderdia dira protagonista bakarrak denon txanponekin egindako aldizkarian.

Guk, beste estilo eta jarrera bat proposatzen dugu Udalerako eta Udal aldizkarirako, talde guztien eta herritarren ororen parte hartze zuzena bultzatuz.

Herri programatik zerbait azpimarratzekotan, eta nire ustez, lehentasun

nagusia daukana, Soroluzen etxebizitza duin bat izatearen arazoa da. Aurre egiteko etxebizitza sozial berriak salmenta eta alokairu eran eraikitzeaz aparte, Udalak hutsak dauden etxebizitzetara irtenbidea eman behar die.

Soroluzek daukan onena eta txarrena? Soroluzek daukan onena plautxiatarren irekitasuna eta umore puntua da nire ustez, eta zerbait txarra edukitzeakotan herri hontakoak izatearen harrotasuna, baina hori ez da txarra.

Zer falta da Soroluzen? Zer dago soberan? Herrian hutsune asko dittugu, batzuk aipatzekotan, Kultur Etxea, Zinea, 12 urtetik aurrerakoentzat Gazte-txoko bat, adinekoendako Eguneko Zentroa, eta abar luze bat....

Soberan berriz, gure plataforman eta herri osoan lanerako gogoia eta indarra, falta direnak egiteko eta datozen guztiei aurre egiteko.

Maiatzaren 25ean zuri bozka emateko arrazoi bat? Askatasun Haizeak herri plataforma Soroluzeko abertzale, euskaldun eta ezkertiarrez osatua dago eta bide horretan egingo dugu lana Udaletxe garden eta ireki bat eskeiniz herritarrei. Milaka eta milaka euskaldunen heriotza zibilari aurre egiteko, beharrezko aldaketa politikora iristeko, AuBri emandako bozka da guretzeko legitimitate eta balio handiena duena, eta beraientzat eskatuko diegu bozka Soroluzetarrei.

PSE-EE: “Alderdi Sozialista da, lehen eta bigarren mailako herritarren arteko bereizketarik gabe, guztientzat gobernatuko duen aukera”

Soraluzeko Alderdi Sozialistak azken hauteskundeetan zinegotzi bat galdu ostean, zinegotzi bakarra izan du azken legealdi honetan, 370 bozka lortu ondoren. Aurten ordezkari bikoiztu eta Udalean indar handiagoa izango duten itxaropenarekin prestatu dute programa. Programan, Arrizabaletoako parkearen 2.fasea gauzatzea, herriaren goikalderako (Gabolatz, Loralde, Zeleta, Kalonge eta Estaziora) eskilara mekanikoak, jubilatuena egoitzarako igogailua jartzea, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenean laguntzea, auzo elkarteek etxeen kanpoko hormak eraberritzeko laguntzak handitzea eta ikasleei 60 euroko dirulaguntzak ematea proposatzen du Alderdi Sozialistak. Udal Gobernu anitz eta zabal baten alde lan egiteko konpromisoa berresten dute.



Soraluzeko Alderdi Sozialistak, bere zerrenda eta programaren aurkezpen ofiziala egin zuten Kiroldegian. Besteak beste, bertan izan zen, Jesus Egiguren Euskadiko Alderdi Sozialistako zuzendaritzako kidea eta Soledad Del Bosque zerrrendaburuak programa eta zerren den berri eman zuten. Miguel Anjel Morales (Eibar) izango da bigarrena eta Patricia Borinaga, Jorge de Castro, Jose Luis Perez ondoren datozenetako batzuk.

ZERRENDABURUA



SOLEDAD DEL BOSQUE ZAROBE

Adina: 53 urte

Jaioterria: Soraluze

Lanbidea: Administrazio idazkaria

Egoera zibila: Ezkondua

Zaletasun bat: Irakurtzea eta mendira joatea. Azken hori oso murriztua daukat orain.

Azken aldian jaso duzun albisterik onena? Eta txarrena? Nere loibaren jaiotza. Eta nere bizitzako albisterik txarrena bizkarzainekin joan behar nuela esan zidatenekoa da.

Zein egunkari eta ze irrati entzuten duzu ohizkoan? El Diario Vasco. Eta irrati, Onda Cero. Eritzia beharbada ez da nere gustokoena baina programa-

zioa atsegin dut.

Nor miresten duzu? Zergatik? Pablo Iglesias (sozialismoaren aintzindarietako bat). Bizitza guztian pertsona guztien ongizatea nahi izan zuelako.

Zer da pertsona batengan gehien estimatzen duzuna? Sintzeritatea eta adiskidetasuna guztiaren gainetik jarri dezala. Beste guztia bigarren mailakoa da.

Soraluzeko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta ezkutatu?

Dudarik barik, Karakate. Haraxe eramatzen dut kanpoko norbait etortzen denean. Ezkutatu ezer ez. Soraluze den modukoa da. Zatarra eta polita izatea da Soraluzeren berezitasuna.

Hauteskundeak. Zelakoak izango dira? Orokorrean berba eginda uste dut ez dagoela gure eskuetan, beste batzuek nahi duten modukoak izango dira. Soraluze mailan normal antzekoak izango direla ematen du. Gure eskuetan balego... guregatik lasaiak eta arruntak, denondako berdintasunekoak. Baina aukera berdinekin. Ze batzuen eskubide falta ikusten da baina guri oraindela askotik kendu digutena ez da ikusten.

Zuen programaren punturik garrantzitsuenak? Guk oso gogoan daukagu, adineko pertsonen ongizatea.

Gure lehentasuna jubilatuena egoitza da. Azken batean, adinekoak ez daukate joateko beste lekurik. Soraluze dena alda da eta egoitzarako bidea ere oso arriskutsua dago nagusiendako. Beste gauza asko daude baina horrekin ez da ezer egiten. Guk eraikina erostea eta igogailu bat jartzea proposatzen dugu.

Soraluzek daukan onena eta txarrena? Onena jendearekin eztabaidatu eta Soraluze horrelakoa dela esatea da. Neure herria da. Txarrena ere gauza bera, Soraluzek ezin duela ematen duena baino gehiago eman.

Zer falta da Soraluzen? Zer dago soberan? Gazteendako gune bat. Gazteak erakarriko dituen batez ere kanpora joan beharrik izan ez dezaten. Badakigu hori zaila dela baina... ez dago ezer. Aparkamentuak falta dira eta autoak daude soberan. Neuregandik hasita denok pentsatu behar genuke honetaz.

Maiatzaren 25ean zuri bozka emateko arrazoi bat? Soraluzetarrek gobernu talde plural bat izan nahi badute, aukera bakarra alderdi sozialista da. Herritar guztiak lehenengo mailako herritar moduan hartu eta Udaletxera la-saitasunez, arazoak konponduko zaizkion ziurtasunarekin joan nahi badu alderdi sozialistak hori eskeiniko dio.

PP: "Gu gara benetako oposizio bakarra. Horrela gauzak beste era batera funtzionatzen dute"

Soraluzeko Alderdi Popularrak azkenengo hauteskundeetan lortu zuen lehen aldiz ordezkari Soraluzeko Udalean, 282 bozkarekin. Aurtengo helburua ordezkari mantentzea izango da. Aurkezpenen azaldu zuten, "Alderdi Popularrak askatasuna, garapena eta kohe-sioa eskeintzen du eta Espainia konstituzionala eta bere egonkortasuna defenditzen ditu, guztiondako kultura, lan politika aktibo bat, zerbitzuen gestioan eraginkortasuna handitzea eta 0defizitera heltzea dira bere helburuak.



Alderdi Popularrak, kanpoko jendez osatu ditu zerrendak, tartean inguruetako herrieta-ko eta Espainiako lurralde ezberdinetako jendea ere badago.

ZERRENDABURUA



JAVIER NUÑEZ ALVAREZ

Adina: 30urte.

Jaioterria: Eibar.

Ikasketak: Administrazioa.

Lanbidea: Zinegotzi moduan.

Egoera Zibila: Izatezko bikotea.

Zaletasun bat: Musika eta zinea.

Azken aldian jaso duzun albisterik onena eta txarrena? Soraluzen gure hautagaitza aurkezteko aukera izango dugula jakitea. Txarrena, gurekin batera zeuden asko faltako zaizkigula ondoan.

Zein egunkari irakurtzen duzu eta

ze irratia entzun? El Correo eta El Diario Vasco irakurtzen ditut normalean. Deiak informazio gehiago ekarri behar luke. Ez dut irratia entzuteko ohiturarik.

Nor miresten duzu? Zergatik? Sole (PSEE-EE zinegotzia). Ni kanpoko naiz eta nere lanak egindakoa txera bueltatzen naiz. Sole hemen bizi da eta oso gogorra da norbere herrian egoera hau bizi beharra.

Zer da pertsona batengan gehien baloratzen dozuna? Aurrez aurre berba egitea eta sintzeritatea. Eritzi ezberdinak baditugu elkarrizketa da konpontzeko bidea.

Soraluzeko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta ezkutatu? Batez ere, mendigainean ditugun monumentu megalitikoak erakutsiko nizkieke. Eremu ederra delako. Ezkutatu, herri hau itsusitzen duten pintada eta kartelak.

Hauteskundeak. Zelakoak izango dira? Batzuekako erosoak eta praktikoak. Beste batzuekako zailagoak izango dira.

Zuen programaren punturik garrantzitsuenak. Guk proposatzen do-

guna herrian zerbitzu berriak sortzea da, behar handia dagoelako. Kultura etxea, bilera guneak, jubilatuen egoitza erostea, gazteendako topaguneak, ludoteka eta liburutegi handiago bat eta abar.

Soraluzek daukan onena eta txarrena? Soraluze bera. Kanean zoazela jendeak gelditu eta zurekin dagoela esaten dizunean soraluzetarrak jende ona direla konturatzen zara. Txarrena, elkarriketarik izateko aukerarik ez dugula. Herriko jende batengandik jasotzen dugun jazarpena eta udal agintariengandik jasotzen dugun jarrera baztertzaila.

Zer falta da eta zer dago soberan Soraluzen? Zerbitzuak falta dira. Haurtzaindegia, kultur etxea. Soberan ezer ez.

Maiatzaren 25ian zuri bozka emateko arrazoi bat? Partidu Popularrak askatasuna eta demokrazia defendatzen ditu. Partidu Popularra da udalean oposizioa egiten duen alderdi bakarra. EAJ-EA Batasunarekin hitzartu izan dute eta Alderdi Sozialistarekin ere bai. Partidu Popularra dagoenetik gauzak beste era batera funtzionatzen dute.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxes 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Egunkariaren proiektu berria aurkezteko jardunaldiak 24an

Maiatzaren 24an, Soraluzeko Egunkariaren Aldeko Herri Batzordeak antolatutako jardunaldien barruan, ekainean kaleratuko den euskarazko egunkariaren berri emango da Udaletxean. Jardunaldiotan Egunkariako langileak izango dira hizlari eta irudiz eta musikaz osatutako emankizun baten bitartez, Egunkaria itxi zenetik gaur arte gertatu denaz

eta egunkari berriaren proiektuaz hitz egingo dute. Ondoren Soraluzeko Herri Batzordeak herrian 12.000 euroko diru bilketa egiteko prestatuko dituenekimenez berri emango du. Egunkari berria ateratzeko 5.000.000 euro batu beharko dira eta horretarako 50 eta 300 euroko akzioak kaleratu dira herritarrek euren laguntza eman ahal izan dezaten.

Kantu Afaria maiatzaren 30ean



Soraluzeko Euskararen Aholku Batzordeak babesean eta Pil-pileanek antolatuta, maiatzaren 30ean egingo da 4. Kantu Afaria. 14 Talde eta koadrila baino gehiago daude gonbidatuta eta urtero moduan aurretik tabernetako boto bidez aukeratuko diren Fernando eta Fernanda ere ezagutaraziko dira. Kantu afaria izango da aurtengo Euskal Jaia osatuko duen astearen lehen ekitaldia. Afari-txartelak salgai daude.

Paradisu Izkutua iruditan

Fernando Oregi plaentxiar argazkilaria "Paradisu Izkutua" izeneko argazki erakusketa eskeintzen du Kiroldegian. Erakusketa honek Myanmar herriaren berri ematen du argazkitan, "nahiz eta diktadura eta zapalkuntza baten azpian bizi, beti erakusten dizute bere alderik gozoena". Maiatzaren 13tik 24ra bitartean izango da zabalik erakusketa, arratsaldero 19:00etatik 20:30etara bitartean (larunbatean 12:00etatik 13:30etara). Hurbiltzen diren ikusleek argazkilariarekin solas egiteko aukera izango dute gainera.



Bertso giro bikaina Gaztetxean



Maiatzaren 9an, Plazatik Gaztetxera txapelketaren lehen kanporaketa jokatu zen Gaztetxean. Saio bizia izan zen eta jendetsua, afaritan 60 bat lagun eta afalostean 90 entzule baino gehiago izan ziren eta. Lehian ziren 6 bertsolarien artean, Peru Magdalena bizkaitarrak lortu zuen garaipena. Ostiral honetan Debako Gaztetxean jokatu da kanporaketa berri bat eta hurrengo ostiralean Elgoibarren.

Gaztetxeko aste antimilitarista



Joan zen astean Gaztetxean antolatu zen aste antimilitarista, hainbat hitzaldi eta emankizun eskeini ziren. Bi hitzaldiak izan ziren, filma ezaguna eta larunbateko kontzertua besteak beste. Antolatzaileen esanetan, "gaztien artian antimilitarinuaren kontzientzia zabaltzia da asmua, munduan daren borroken benetan zer gertatzebzan jakinaz".

Irukurutzeta egun arrakastatsua



Maiatzaren egin zen Irukurutzeta Eguna. Iluntze parterarte egin zuen eguraldi bikainak lagunduta, ehunka lagun (15etik gora) elkartu ziren. Iluntzeko euri zaparradak eman zion azkena aurtengo ospakizunari.

Trikitilari eguna Etxarri Aranazen



Maiatzaren 4an ospatu zen Etxarri-Aranazen Euskal Herriko Trikitilari Eguna. Musika eskolako trikiti ikasleak eta gurasoak izan ziren bertan.

Futbola

Txuri Urdinak peñaren aurkezpena gaur Kiroldegian

Orain gutxi antolatu den peña honek datorren gaur astelehena, bere aurkezpena egingo du herriaren aurrean. Aurkezpen egunerako egitarau mardula osatu dute, arratsaldean musika eta buruhandiak izango dira eta jaia ongi amaitzeko afari bat ospatuko da. Afari hontara errealeko zuzendaritzako jendea eta lehen taldeko jokalariek etorriko dira.

Kadeteak Gipuzkoako kopa-ko finalerdietan

Joan den maiatzaren 11-n Sora-ko kadete mailako taldeak kopako final-laurdenetako partidua jokatu zuen Beasain taldearen aurka, 3 eta 0 irabazi zuen.

Finalerdietako partidua etxean jokatu dute maiatzak 17-an, larunbata, Donostialdeko Ekintza taldearen aurka. Animo mutirik!!!

Athletic – Real partidua Ezozin.

Joan den urtean bezala aurtengoan ere bi talde euskaldunen jarraitzaileak maiatzak 24-rako Ezoziko futbol zelaian zaletuen arteko partidua antolatu dute. Partiduaren ostean partehartzaileek afari bat egingo dute Ez da lehen mailako partidua izango baina



ziur animatua izango dela eta mereziko duela Ezozira igotzeko.

Infantilak Txapeldun.

Soraluzeko infantil mailako taldeak Eibarko kopako txapelketan garaipena lortu zuen joan den maiatzaren 3-an. Finala La Salle talde eibartarraren

aurka jokatu zuen eta partidua hiruna berdindu zuten. Reglamenduari jarraituz partidua amaieran penaltiak bota beharko ziren baina La Sallekoek konbokatoria betetzeko beste talde batetako hiru jokalariek hartu zituztenez Eibar taldeko delegatuak garaipena Soraluzetarrei ematea erabaki zuen.



Pelota

Herri arteko txapelketa hasi da asteburuan

Asteburu honetan hasi da herri-arte-ko txapelketa. Soraluze herriaren lehen aurkaria Azkoiti izango da. Historian zehar txapel gehien lortu dituen herria.

Baina gogora dezagun Soraluzetarrok parte hartu genuen azken aldian, duela bi urte (ihaz frontoirik gabe geun-

den eta), lehen aldiz Txapeldun suertatu ginela. Finala Aretxabaletaren aurka izan zen eta benetan gogoangarria izan zen 2 eta 1 irabaziz.

Aurten, kadete mailan Aitor Atxotegik eta Jon Varelak jokatu dute, gazte mailan Erlei Txurrukak eta Zuhaitz Ro-

driguezek eta nagusi mailan Onar Mugarzak eta Iñaki Jauregik.

Elgetako 41/2 barruko Txapelketa

Elgetako 41/2 txapelketan Aitor Atxotegi kanporatua izan da eta Iñaki Jauregik aurrera jarraitzen du bi kanporaketa gaindituz.



Belarrak

Loradenda eta belardenda

Erosketak etxera eramango dizkizugu

Telf. 943 75 30 11



LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

Gustavo Testa Fernandez

Udaletxiari urte honetan eskeinitako errespetua eskertzia nahiko notsake.

Lugoko Fonsagrada herritik Euskal Herrira etorri zantetik 43 urte pasatu diran arren ia danok "Gallegua" moduan ezagutzen dogu Gustavo. Hemendik gutxira jubilatzen jaku baina esan doskunez pozik dago egoera barrixan aurrian. Lana laga bihar daben arren, esker onez beteta esaten dotse agur berakin lanian ibilitakueri eta Udaletxekueri.

Izen abizenak, edadia ta lanbidia

Gustavo Testa Fernandez, 59 urte eta udaltzaina

Gustoko tokixa, zenbakixa, animalixa ta koloria:

Mendi inguruko tokiren bat, 15a, oreina ta berdia

Bapo geratzeko moduko menua.

Lehenengo ensaladia, gero arraina ta postrian frutia. Edateko arda beltza, Errioxakua edo.

Udaberrixak zer ekartzen dotsu gogora?

Poztasuna, mendi aldera juatia, naturia Ni berez baserrikua naiz ta horregaittik beti gustau izan jata natura.

Afiziñoren bat?

Irakurtzia ta eskulanak egittia, arotzerixan edo dekoraziñuan.

Zelan sartu ziñan udaltzain?

Periodikuan oferta bat ikusi (orduñ Alberdi Hermanosen egitten neban lan), oposaketak egin ta lanian hasi nintzan.

Zaila al da udaltzain lana?

Ez, 33 urte dira lan honetan hasi nintzala. Lehenengo Eibarren hasi nintzan eta 71n hona etorri nintzan.

Lan haundixa al dao Soraluzen?

Ez, hau herri trankila da.

Udaltzain lanan larrosia eta arantzia.

Larrosia jentiarri zerbitzu bat eskaintzia eta arantzia baliabide faltia.

Jubilaziñuak zer suposatzen dotsu?

Deskantsatzeko astixa eta obligaziño bat gainetik kentzeko aukeria.

Ta oin zer?

Oingo ez dao planik, atsedan hartu ta oporretan trankil juan.

Zerbait aldatuko al zenduke lan

Bertso Begiz

*"Gallegua"aren umore fina
eta sakrifizioa,
harrapatu du udaltzain honek
bere jubilazioa.
Urteetako lana,
odolean darama,
udaltzain ofizioa.
Ta orain ia nork kentzen dion
agintzeko bizioa.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Gustavo Testa Fernandez

honetan?

Oin jende gutxi geratuko da. Gauza asko aldatu leizke baina hori politikuen arduria da.

Eskerren bat emoteko?

Udaletxiari urte honetan eskeinitako errespetua eskertzia nahiko notsake.

Anekdotarik edukiko dozu, ezta?

Galdutako gauzetara hagin postizuak be ekarri izan doskuez. Bi edo hiru urte pasautakuan, agertutako erropak Caritasi emon eta bestelako gauzak bota egitten dittugu.

Bukatzeko, txisteren bat?

Hor doia baserritar bat bi asto saltzera ferixara ta lagun batek ikusten dabenian ia zergaittik saldu bihar dittuan galdetzen dotsa. Honek alkar ikusi be ezin dabela egin esanda bestiari erregalazten dotsaz. Etxera eruan eta amildegi batek jausten dira bi astuak eta jabe barrixak hasarre, engaño egin dabela esaten dotsanian, bestiak erantzuten dotsa berak gizurrik ez zebala esan, astuak ezin zebala alkar ikusi.



SAN ANDRES Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



**Hnos. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Aste Santuko argazkia



Eskoizian barrena

Fernando eta Mertxe Txurrukak Eskoizian barrena ibilaldira bat egiteko aprobetxatu dute Aste Santuko oporraldia. Irudian, Eskoziako lurretako soro batean ateratako argazkia da honakoa. Mertxe Txurruka soralezetarra azaltzen da eskuinean, lore artean. Fernandok eta Mertxek irabazi dute lehiaketako afaria.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Fernando eta Mertxe Txurruka
Erantzuna: Aste Santuko argazkia




Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net


20590 SORALUZE
Gipuzkoa

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze




Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Ugaraxo



2.003ko maiatza 19an, 15. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Denok gara desberdinak



Eta munduko haur guztientzat eskubide eta betebeharrak berdinak nahi ditugu.

Aurreko astean eskolan haurren eskubide eta betebeharrak buruz hitz egin dugu. Pelikula bat ikusi dugu eta jolas batzuk ere egin ditugu. Oso ondo iruditu zaigu dena baina telebista jarri orduko haurrak sufritzen ikusi ditugu.

Horregatik pentsatu dugu guk ikasitakoa aldizkarian ateratzea, gerran dauden lekuetan eta herri pobreetan ez direlako betetzen haurren eskubideak.

Haurren eskubide eta betebeharrak

1- Munduko haur guztiek eskubide berdinak dituzte.

Munduko haur guztiek ondokoen eskubideak errespetatu behar dituzte.

2- Haur guztiek izen bat eduki eta lasai bizitzeko eskubidea dute.

Haur guztiek ondokoen izena eta lasai bizitzeko daukaten eskubidea errespetatzeko betebeharra dute.

3- Haurrak bere iritzia azaldu eta kontuan hartu izateko eskubidea du.

Haurrak ondokoen iritzia errespetatu eta kontuan hartzeko betebeharra du.

4- Ezintasun mental edo fisikoak dituzten haurrek zainduak izateko eta ikasteko eskubidea dute.

Haur guztiek, ezintasun mental edo fisikoak dituzten pertsonen lagundu eta erakusteko betebeharra dute.

5- Haur guztiek eskolara joan eta bertan beraien ahalmenak garatzeko eskubidea dute.

Haur guztiek beren bi gurasoek eskaintzen dieten bizi eta laguntasuna errespetatzeko betebeharra dute.

6- Haur guztiek eskolara joan eta bertan beraien ahalmenak garatzeko eskubidea dute.

Haur guztiek eskolara joateko betebeharra dute.

7- Haur guztiek, bizi diren herrialdeari dagozkion hizkuntza eta ohiturak jasotzeko eskubidea dute.

Haur guztiek, jaio diren herrialdeko hizkuntza eta ohiturak errespetatzeko betebeharra dute.

8- Haur guztiek dute gaixorik edo min hartuta daudenean medikuen laguntza jasotzeko eskubidea.

Haur guztiek dute, beraien osasuna zaintzeko betebeharra, mediku eta gurasoek esaten dizkieten aholkuak jarraituz.

Ugaraxo

Haurren eskubideak

9- Haur guztiek daukate aske izateko eta ondo tratatuak izateko eskubidea.

Haur guztiek ondoan dituzten pertsonak ondo tratatu eta errespetatzeko betebeharra dute.

10- Haur guztiek dute beraien bizimodu bat izateko eskubidea, eskolara joanez eta lagunekin jolastuz, ordainduko lanik egin gabe.

Haur guztiek dute beraiei eskaintzen zaien bizimodua errespetatzeko betebeharra, eskolara joanez eta jolastuz.

11- Haur guztiek beraien familiekin batera intimitatean bizitzeko eskubidea dute.

Haur guztiek errespetatu behar dute beraien familiak eskaintzen dieten intimitatea eta bizitzeko aukera.

12- Haur guztiek dute ondokoengandik desberdinak izateko eta desberdin pentsatzeko eskubidea.

Haur guztiek ondokoen izateko eta pentsatzeko erak errespetatzeko betebeharra dute.


Gorputz atalak ezagutzen



Oraindik txikia naiz
bost urtetzorekin
lurreraino heltzen naiz
hanka motx hauekin
bi belarri, bi begi,
sudurtxoarekin
bi metro neurtu baietz
hogei urterekin.

Ezkerrean bihotza
tipi eta tapa
odola gorputzean
jira ta biraka
pentsamenduak ere
buruan milaka
egunez jolas eta
gauean surrunka.

Goian daukat burua
erdian bularra
alboetan besoak
esku ta hatzamarrak
sabelaren erdian
zilborra kaxkarra
atzeko ipurditik
bota dut puzkarra.



Nun egon zara Aste Santuan?

ANDONI ODRIOZOLA
9 URTE

Valdezcaraira jua gara eguna pasatzera. Oporretan asko jolastu dot eta oso ondo pasau dot.



JANIRE SALGERO
11 URTE

Amama bisitazen egon naiz. Pizzinara jua naiz eta oso ondo pasau dot Aste Santuan. Oporretan beti ibiltzen da ondo.



NORA LOBATO
9 URTE

Donostiara jua gara tiagana. Nere ahiztia eta ni jua gara. Hondartzan be ibili gara eta oso ondo pasau dot.



ALAZNE GORDEJOLA
8 URTE

Cadiz-era jua gara tio bisitatzera. Hondartzan mordo bat dago eta eguraldi ona egiten dau. Primeran pasau dot.



Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan andereña ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezker **denborapasako aldizkari edar bat** irabazi ahal izango dozu.
Aurreko aleko irabazliak: Iker Benito

Erantzuna: Marimer Muñoa
Saria IRATXO Goxodendan eskatu

Esaxozu...(amodiozko, zorion agurrezko... mezuak)

Aupa Deportibo de la Coruña eta S.B. (Urko A.). Abeslari izatia nahi dot, oso ondo abesten dotelako (Janire S.). 6-Bkoak onenak gara. Aupa 6-B! (Oier, Aimar, Leo, Gaizka, Asier, Iñigo U., Iñigo G., Joanes, Jonathan, Jefri). Aupa erreala eta S.B. eta arbitro hobiak bihar lirake (Jon Laskurain). leup Egoitz, ia noiz laguntzen doskuzun neskekin gehixao ligatzen. Animau hari la ostia !! (Iker B. Eta Jon G.). Frontoiko porteri-



xetan saria jartzia. Eta kanastak konpondu. (Leo Z, Gaizka S., Aimar B., Oier L. eta Asier). Gerrari ez! Mundua hobetu deila. Aznar eta Bush dagoenetik, pinponaren afizioa sortu da eskolan. Beñat S. Eta Gaizka A. Aupa Erreala! Real Madrilen kontra irabazi ein bihar dau. Sorluzeko mutilak jarraitu hain jatorrak izaten. (Marta, Mireia eta Janire). Aupa Erreala eta 6.B (Iñigo U.).

4

Ugaraxo

Korrika
txiki



Apirilaren 6an pasatu zen Korrika herrian. Hurrengo egunean Korrika Txikia egin genuen ikastetxeko ikasleok: Badira ikasle batzuk kontua oso serio hartzen dutenak eta besoa jasota garrasi egiten dutenak (J.P.), beste batzuk irriparre egiten dute eta beste batzuk buru makur doaz:

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!

HERRI BAT GEROA LANTZEN !

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA



Aurtengoan ere Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolako ikasleek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan parte hartuko dute. Lehen kanporaketa Eskoriatzan izango da maiatzaren eta finala Lazkaon jokatuko da ekainaren.

Hauek dira parte hartuko duten ikasleak: Iker Benito, Martin Azkarate, Jon Gabarri, Jaritz Albisua, Oier Fernandez, Beñat Sierra, Gaizka Azkarate, Oier

Ariznabarreta eta beste nagusiago batzuk.

**Gonbidatuta zaudete beste guztiok be!
Emon izena andereñoari eta etorri!**

SORALUZEEKO IBILIXAN-IBILIXAN BERTSO ESKOLA



Euskaldunagoa? Oso zaila dago.

Independenteagoa? Ez da erraza.

Pluralagoa? Zein bezain plurala?

Hobea? Hoberena zen.

baina
hobetuko dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:

www.ektsa.net Tf: 635 733 385 · 635 733 386

Hau aldatzera goaz!

**denok batera,
gipuzkoa aurrera!**



www.aubilgunea.org
gipuzkoa@aubilgunea.org

bozka

GIPUZKOA
Autodeterminaziorako Bilgunea



Alberto Suduperekin

Soraluze beti aurrera.



Bozkatu eraginkor.

eusko
alkartasuna



**Autodeterminazioaren alde!
Faxismoari aurre egin!
Batu Indarrak!**

BOZKATU!



Askatasun Haizeak